

Ekintzak edo jarduerak bi mailatan sailkatuko ditugu, lehenengo mailako ekintzak eta bigarren mailakoak. Lehenengo mailako jarduerak izango dira garrantzia gehien izango dutenak, hauek baitira gure proiektuaren ardatza, hauek gabe ezingo genuke aurrera egin, beraz, bertan jarriko dugu indarra, horrek ez du esan nahi bigarren mailako jarduerak egingo ez ditugunik.

1. mailako ekintzak edo jarduerak

- Formakuntza eskaintzean egongo da gure indargunea eta, horretarako guk ere informazioa jasotzea ezinbestekoa izango da, gerora gure lana ondo egituratzeko. Ikasleak garen heinean aniztasun funtzional mota ezberdinak dauzkaten pertsonen garapenean oztupo asko ikusi izan ditugu eskoletan, eta beren beharrei ondo erantzun ezean euren garapena kolokan jar daitekeela konturatu gara. Horregatik, formakuntzekin pertsona horien beharrei ikusgarritasuna ematea eta eskoletako irakasle eta hezitzaileei behar horiek asetzen irakastea lortu nahi dugu. Formakuntzen denboralizazioa 2 ordukoa izango da, bertan teoria eta praktika bultzatuko dugu dinamika ezberdinak erabiliz.
- Formakuntzaz gain aholkularitza ere emango diegu irakasle eta hezitzaileei. Honekin lortu nahi duguna da eskolan irisgarritasuna lortzea, denontzat egokituta izatea. Ateen zabalera kontuan izatea edozein pertsona pasa ahal izateko (gurpildun aulkian dauden pertsonak adibidez), arrapalak edo igogailuak behar badira jartzea, baliabide material, teknologiko eta giza baliabideak izatea ikasle bakoitzaren beharrak kontuan izanda...

2. mailako ekintzak edo jarduerak

- Baliabideak lortu
- Eskura dauzkagun baliabide didaktikoak erreparatzen joatea, eguneratuta dauden ala ez jakitea...
- Promozioa egin: Triptikoak eta posterrak diseñatzea eta publizitate kanpaina sortu. Sare sozialak erabili promozioa egiteko.
- Enpresaren web orriaren diseinua egitea eta bertan gure datuak eguneratzen joatea, baita enpresaren sare sozialetako orriak eguneratzea.

- Aliatuekin harremanetan jarri: Elkarte eta ikastola ezberdinekin harremanetan jartzea sare sozialen zein emailaren bitartez.
- Asanbladak egitea bertako langileen artean, horrela, ematen ari garen formakuntzaren ebaluazioak egiteko eta proposamenak jasotzen joateko. Asanbladak bi astean behin egitea proposatzen dut, eta asteko egun berean.
- Gu profesionalak izanda, gure ikuspuntutik, eskolaren espazioa denontzat irisgarria izateko diseinu batzuk sortuko ditugu eta hauek irakasleei emango dizkiegu. Irisgarritasuna ahalik eta gehien sustatzearen asmoarekin hainbat ideia gomendatuko dizkiegu.

Kanpoko enprekin hitzartu beharreko ekintzak: Zenbait ekintza ez dira guztiz gure enpresaren esku egongo, hala nola:

- Formakuntzak noiz eman, azken finean, ikastolekin finkatuko ditugu klaseen eta bileren datak, elkarren agenda begiratu.
- Zenbaitetan ikastolen elkarrearen laguntzaz zentro ezberdinetara hurbiltzea espero da, baita Once edota horrelako erakundeen bidez ere.